

2005eko urria

42. zenbakia

Aikor



txorierriko aldizkar

Bostak eta iluna, txarria hilteko eguna

Antonio Alvarez Solis-Zamudioko San Martin jaiak-Derioko hilerria-Iraultza FT

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx) Tf.: 94 452 34 47

e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Alberto Legarreta, Gaizka Eguskiza, Mari Tere Onaindia, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Pospolin eta Aritz ta Nagel.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao, Juanxu Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier Oruetxebarria, Oihana Astobieta, Maripi Agirre, Juan Luis Goikoetxea, Iñaki Beitia, Toti Mtz de Lezea eta Maitane Urrutikoetxea.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Jagoba Zallo eta Iñaki Astorkiza

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Gaizka Eguskiza

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



Eusko Jaureritza



Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saria

diruz lagundutako aldizkaria



11 Antonio Alvarez Solis



26 Iraultza FT



20 Zamudioko San Martin jaiak



24 Vista Alegrekko hilerria

AURKIBIDEA

4Eritxia **5**Gutunak **6**Laburrak eta albisteak
11Gurean izan da... Antonio Alvarez Solis
12Gazteen txokoa **13**Gaztea eta... Asier Aurtenetxe
14Body Center, kirol zentroa **20**Zamudioko San Martin jaiak **24**Vista Alegrekko hilerria **26**Iraultza Futbol Tadea
28Iñaki Suarez, sumillerra **30**Musika **31**Txorierri eza-gutu **32**Sukaldaritza **33**Denborapasa **34**Agenda

AIKOR! aldizkariaren laguntzailea egin:

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonia _____

e-posta _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Diru kopurua _____

Orri hau helbide honetara bidali:
 Aresti, 2 /
 48170, Zamudio

Larrabetzu



TOTI MARTINEZ DE LEZEA
(Idazlea)

Duela hogeita hamar urte, Larrabetzura bizi-teraz etortzea erabaki genuenean, hainbat arrazoi ulergarriengatik egin genuen: herri txiki eta euskaldun batean bizi nahi genuen, eraberritzeko etxe zahar bat erosi nahi genuen eta lantokitik hurbil egon, baina aldi berean, seme-alabak bizigiro atseginean hazten ikusi eta Naturaz gozatu nahi genuen. Pentsatu bezala, egin genuen eta Txorierri etorri ginen. Ez gara inoiz damutu.

Hala ere, aitarien batean pasatu da denbora eta ailegatu ginenean fabrika pare bat eta tailer batzuk baino ez zituen bailara industriad eta etxebizitzaz bete da. Hasiera batean Derio izan zen, gero Zamudio, Sondika, Lezama eta orain Larrabetzuri dago. Azken herriari, probintzia-hirigintzako planen barruan hain ahaztuta dagoen herriari, ezen Lezamatik urruntzen duen hiru kilometroko trenbidea ere ez zen egin, trena bertoraino ailegatu ahal izateko.

Antza denez, erdi-aroko uribildu

honek –Txorierriko bakarra, 600 urtetik gorako Historia duena eta hizkuntza, nortasuna eta ohiturak mantendu dituena– polita izan eta bizi-kalitate inbidiagarria edukitzeaz gainera, erruz eraikitzeke lursailak dituenaz jabetu dira batzuk orain. Eta, Bilbo asaskatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren Planaren barruan sartu dute.

Halaber, uribildua antolatu nahi dute, erdi-aroko uribildu baten aztarna identifikagarriak desagerraraziz, ortuak kenduz, baserri batzuk erortzen utziz, eraikinak han-hor-hemen eginez, hirigunetik hurbil dauden berdeguneak okupatuz, hiru altuera baino gehiagoko eraikinak altxatzea debekatzen duen legea indargabetuz, lursailen espekulazioa eta luxuzko etxebizitzak eraikitzea bultzatuz eta, bide batez, bigarren eskuko etxebizitzaren neurritz kanpoko prezioen igoera sustatuz.

“Uria antolatu nahi dute, erdi-aroko hiri baten aztarna identifikagarriak desagerraraziz, ortuak kenduz, baserri batzuk eraisten utziz...”

Denbora gutxi barru guztiok elkar ezagutzen dugun uribildua, euskara gehiengoaren hizkuntza den uribildua, seme-alabak eta ilobak kalean ardura barik jolasen diren uribildua, auzokideok elkarrekin topo egin eta denborak presarik ez duen uribildua herri iza-

era galdu eta lohiri bihurtuko zaigu, beste hainbesterekin gertatu den bezala. “Buru pentsalariek” paradisuak ezin direla izan erabaki dute eta hurrengo urteetarako biztanleria hirukoiztu nahi dute. Larrabetzu mota askotako zerbitzuak –golf zelaia, barne-, autopistak eta poltsiko pribilegiatuenentzako etxebizitzak edukiko dituen enklabe modernoak izango da. Lastima benetan.

Euskal txori Herria



JUAN LUIS GOIKOETXEA
(Irakaslea eta euskaltzain urgazlea)

Goizero zutunik parau eta Institutura joaten nazenean, atean dozena erdiko neska taldea topetan dot euskaraz, jakina, erdaldun askoren artean. Arteko egunetarik baten, pare parean suertaturik esan neutzen: “Egunon! Poztasuna hartzen dot zuek euskaraz entzunik! Agur!”

Ordutegiaren barruan Euskal Kultura deritxan ikasgaia daukagu. Euskaldunon jatorria, ohiturak, kanta, ipuinak..., mila kontu irakasten deuset. Euren aukeratuko gaia izan arren, gehien gehienek erdara Santxo Pantzarenean ekiten deusie. Jokabide horren aurrean, eten barik errepikatzen dot, gaia euskaraz sortuko kultura izanik, alper alperrik nabilela berbaz, ezertxu be ez deusieula ulertu.

Ganera, Euskara eta Literaturako orduetan ikasgelara erdaraz sartzen danari eskatzen deusat, mesedez kanpora urtenik ikasgelara euskaldun sartu daitela.

Hori eta antzerako ekintzak bultzatu arren, ez dogu lortzen asko eta asko euskaraz bizi daitazan. Hau da, ez dogu lortzen ezta geutarrak, geure geureak, euskararako irabaztea be.

Horrenbestez, bihurtu ete da irakaskuntza uriko iturri artifizial, goian txorro behean kloro darabilen ur beti berbera?

Guk ur iturri bizia gura dogu, Institutuko atean topetan dodan neska taldea lakoa, eta horretarako laguntzinoa behar dogu, gurasoena-eta.

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunene atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@yahoo.es

Isolamendu politikoaren kontra

Aspaldi honetan barra-barra entzuten dira akordioa, prozesua, elkarrizketa eta horien moduko hitzak. Beste alde batetik, urtarri-laren 3an Euskal Presoen Kolektiboak borroka-dinamika bat jarri genuen martxan, ondorengo hauek aldarrikatzeko: isolamendu politikoari amaiera ematea eta presoen estatus politikoa eta estatus horri dagozkion eskubide guztiak onartzea.

Alcala-Mecoko emakumezkoen kartze-lan azken hilabete hauetan etengabe murriztu zaizkigu bizi-baldintzak. Horregatik eta gorago aipatutako aldarrikapenak lortzeko, borrokari ekin diogu maiatzaz geroztik.

Beste hainbat kartzelatan bezala, Espainiako Gobernuaren aldaketaren ondorioz geuri beste zuzendari bat ezarri zitzaigun. Batzarra egiteko eskatu genion eta batzar horretan adierazi zigun ez zuela gure kolektibitatea onartzen, nahiz eta ordura arte kolektibotzat hartuak izan ginen.

Ondorioak hauek dira: preso bik berogailu barik eman zuten negu osoa; kirol eta beste jarduera batzuetan parte hartzeko murrizketak izan ditugu; bisita eduki ahal izateko, hamar lagunen zerrenda eskatu digute; lehen modulu bitan geunden eta orain lau modulutan banatu gaituzte... Argi dago, bada, murrizketa horiek guztiak isolamendu politikoaren isla eta ondorio direla.

Horrezaz gainera, bigarren graduari gaudela kontuan hartuta, zuzendari berriak "paseatzeko eta jolas-ekintzak egi-

teko eskubidea kentzea" izeneko zigorra aldatu egin zigun urtarrilean: aurreko zuzendariarekin lau patio ordu izaten genituen goizez, eta zigorra arratsalde betetzen genuen modulu barruan edo ziegan; orain, berriz, egun osoan zehar bete behar izaten dugu eta patio ordu bakarra uzten digute. Ordu horretan erosketak, medikuarenera joan eta horrelakoak egin behar izaten ditugu, gainera. Zigor mota hau isolamendu-zigorra baino arinagoa da, baina isolamendua beteta, patio ordu bi izaten ditugu eta patio-gabetzea zigor gogorragoa bilakatzen da. Horri guztiari beste faktore batzuk gehitu behar zaizkio: parteetan funtzionarioak gezurretan ari-tzea, osasun arloan tratatu egokirik ez jasotzea...

Egoera honi irtenbidea eman behar zaiola adierazi diogu zuzendariari, hainbat idatziren bidez, baina ez dugu erantzunik

jaso. Horregatik borrokaldiari ekin genion maiatzaren lehenengotan: ziegetara indarrez eraman arte planto gogorrek eginez, zenbaketak apurtuz, kontzentrazioak antolatuz eta abar.

Zuzendariak ez dauka elkarrizketarako borondaterik, eta borrokaldiari ekin genionetik sei kide urrundu dituzte; horregatik, irtenbidea topatzeko borondaterik agertzen ez duten bitartean, borrokan jarraituko dugu.

Euskal presoen aldarrikapena argia eta tinkoa da: kolektibo moduan dagozkigun eskubideak errespetatu daitezten eta era berean, Euskal Herriari dagozkion eskubideak eta herritarren nahia errespetatu ditzaten. Gure borrokak eta konpromisoak herriaren etorkizuna bideratuko dute eta.

Alaitz Artetxe, Alcala-Mecon preso dauden 11 euskal emakumeen izenean.

Kontsumoaren Erakusketa Ibiltaria Derion inauguratu dute

Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Sailak Kontsumoaren Erakusketa Ibiltaria antolatu du eta urritik abendura bitartean Euskal Herriko hainbat tokitan jarriko da. Inaugurazioa Larrabari Derioko baserrian egin zen, urriaren 14an, eta bertan izan ziren Teresa Garcia Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Saileko Zerbitzuen burua, Lander Aiartza Derioko alkatea eta Derioko Dendari eta Zerbitzuetako Elkarteko presidentea.

Erakusketa honen helburua da herritarrek konturatu daitezen zein garrantzitsua den etiketak irakurri eta argibideei jarraitzea. Erakusketa horretako azalpenak emateko, interakziozko sistema bat erabiltzen da; sistema horrek erakusketan parte hartzeko aukera ematen dio bisitariari.

Kontsumoaren Erakusketa Ibiltaria Derion izan zen hilaren 16ra arte, bisita gidatuak egin ziren herriko taldeekin eta eskolako umeekin.



Larrabetzuko Berba-lagunak, berbaro berriari ekiteko prest

Udako oporretatik indarberrituta etorri dira Larrabetzuko Berba-lagunak eta iazko taldeak martxan jartzen hasi dira. Horrezaz gainera, proiektuan lagun gehiagok parte hartzeko deialdia egin dute. Beraz, nahi duten guztiek Arrekikiki euskara elkartean edo Anguleri kultur etxean eman dezake izena. Taldean aritzeko, euskaraz jakitea edo gehiago jakiteko gogoia izatea besterik ez da eskatzen, eta jakina, berba egiteko prest egotea.

Zamudioko enpresa batzuen egoera salatu du LAB sindikatuak


Eskualdeko LAB sindikatuak Zamudioko enpresa batzuetako langileen lan-ziurgabetasuna salatu du, komunikatu baten bidez.

Sindikatuaren arabera, Stempel enpresaren itxiera gertu dago eta 14 langileak kalean geldituko dira, "jabeak enpresaren patrimonioa espekulatzeko erabili du eta". Beste alde batetik, komunikatuan adierazi du LP Springs España enpresak Industrias Subiñas enpresa irentsi duela eta 52 lagun langabeziara bidaliko dituela. "Zamudioko planta itxeko asmoa dute eta langileei Zaragozara edo Jaenera joateko proposamena egin diete".

Komunikatuan adierazitakoaren arabera, Troqueleria Irurak enpresak likidezia-arazo larriak ditu eta bertako 124 langileen lanpostuak arriskuan daude, "nahiz eta zuzendaritzak eskatu dien esfortzua bete duten, hau da, gehiago lan egin, baina kobratu gabe". Azkenik, Matriceria Vizcaina enpresak, 40 langile dituenak, ordainketa-etenaldian ezarri duela salatu du.

LAB sindikatuak aurretik itxi diren beste enpresa batzuk —Zubiri,...— gogorarazi ditu eta langileei dei egin die enplegu-ezgonkortasunaren aurka borrokatzeko eta elkarrekin aritzeko.

Etxahun, Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurrekoetara



Argazkia: Bertsotale Elkartea

Urriaren 15ean, Bertsolari Txapelketa Nagusiko bigarren azken-laurdena egin zuten Idiazabalgo frontoian, eta Etxahun Lekue larrabetzuarrak finalaurrekoetara zuzenean pasatzea lortu zuen. Bertsolariak 706 puntu eskuratu zituen. Finalaurrekoen lehenengo itzulia egun eta toki hauetan izango da: azaroaren 6an, Hendaian; azaroaren 12an, Markina-Xemeinen, eta azaroaren 13an, Gasteizen. Bigarren itzulia beste egun eta toki hauetan egingo da: azaroaren 26an, Zumarraga-Urretxun; azaroaren 27an, Beran, eta abenduaren 4an, Donostian. Txapelketaren finala abenduaren 18an ospatuko dute Barakaldoko BECen.



'Dir-dir', Kukubiltxoren ikuskizun berria.– Kukubiltxo Larrabetzuko antzerki taldeak Dir-dir ikuskizun berria aurkeztu du. Dir-dir euskarren aldeko lana da eta Argitxo da pertsonaia nagusia. Behin bazen mundu iluna, eta bertan isiltasuna bazter guz-

tietara hedatzen zen. Baina Argitxok argi tanta bat kokatu, eta erresuma beltz hori soinu eta distiraz bete zen. Hizkuntzen Unibertsoa sortu zen. Eta tanta haietatik guztietatik Argitxok eta Dir-dir bere lagunak bat aukeratu zuten zaintzeko: euskara.

Perkusio afrikar ikastaroa eta Bertsolari Txapelketarako sarrerak, Lagatzuren eskutik

Lagatzu Zamudioko Euskera Alkarteak hainbat ekintza antolatu ditu azaroan. Horrela, bada, afrikar perkusioko ikastaroa egingo dute hilaren 5ean, 12an eta 19an eta Maddi Oihenart eta Josetxo Goia-Arribek bikotearen kontzertua izango dute hilaren 23an. Beste alde batetik, Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerako sarrerak salgai jarri dituzte; sarrerok 25 euro balio dute eta elkarteko bazkideei prezio berezia egingo zaie (20 euro). Finala abenduaren 18an jokatu da Barakaldoko BECen, eta nahi duenarentzat autobusa jarriko da joan-etorria doan egiteko. Autobusean lekua hartzeko eta sarrerak eskuratzeko azken eguna azaroaren 25a izango da. Ekitaldietan izena emateko 944523447 telefono zenbakira deitu behar da.

Txepetxa euskaltegiak logo lehiaketa antolatu du

Txepetxa Txorierriko AEK-ko euskaltegiak 20 urte bete ditu aurten eta, urteurrena ospatzeko ekitaldien artean, logo lehiaketa antolatu du. Lanetan txori bat eta Txepetxa Txorierriko AEK-ko euskaltegia hitzak agertu behar dira eta zuri-beltzez zein kolorez (hiru kolore, gehieenez jota) egin daitezke. Euskaltegiko irakasleek, ikasleek eta pinturan aditutako pertsonak osatuko dute epaimahaia, eta aukeratutako logoarekin kamisetak aterako dira. Lehiaketa edozeinek har dezake parte eta lanak abenduaren 16ra arte aurkeztu daitezke euskaltegian. Irabazleak 300 euro eta afaria jasoko ditu sarritzat.

Beste alde batetik, euskaltegitik pasatu diren irakasle eta ikasleen argazki erakusketa egingo da abenduan.

Txorierrri taldea Euskal Herriko Harri-zulatzailleen Binakako Txapelketaren irabazlea

Urriaren 9an, Euskal Herriko Harri-zulatzailleen Binakako Txapelketa izan zen Gallartan eta Txorierrri taldeko Aitor de la Concepcionez eta Iñigo Aurrekoetxeak lehenengo postua lortu zuten bertan. Txorierrrikoek 13 zulo eta 7,8 zentimetroko marka egin zuten.

Beste alde batetik, Aurrekoetxea txapeldunordea izan zen Euskal Herriko Banakako Txapelketan. Lehiaketa urriaren 23an ospatu zen Galdamesen eta harri-zulatzailleak bost zulo eta 6 zentimetroko marka egin zuen, irabazleak baino zulo bat gutxiago. "Irabazteko aukera handia nuen, baina harria ez zegoen ondo josita lurrean eta gauzak ez ziren nahi moduan atera. Hala ere, pozik gaude: bigarren postua lortu dugu eta Binakako Txapelketaren irabazleak izan gara. Ez dago txarto", esan digu Aurrekoetxeak.



Zamudioko Kamara Koralak Terrasan emango du kontzertua

Azaroaren 22an, Santa Zezilia -Musikarien Eguna- izango da eta Zamudioko Kamara Koralak luze ospatuko du. Horrela, bada, hilaren 19an eta 20an Terrasan emango dute kontzertua, Catalunyako Federazioak gonbidatuta. Eta bide batez, Bartzelonako Euskal Etxeak antolatzen duen Euskal Sona'05 musika ekitaldia ezagutzeko aukera izango dute.

Beste alde batetik, Euskal Telebistako

EKO (Euskal Kanturik Onena) saioan parte hartuko dute hilaren 23an. Saiora joateko autobusa doan jarriko da eta norbait animatzen bada hurrengo helbide honetara bidali behar du mezua, eserlekua gordetzeko: lekonbarri@yahoo.es. Azkenik, Zamudion iluntzeko meza abestuko dute hilaren 26an eta ospakizunak amaitutzat emateko, afari ederra ere egingo dute egun horretan.

Erandioko Landako auzokideek kautelaz hartu dute Foru Aldundiaren erabakia

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailak adingabeko zortzi gazte arazotsu Erandioko Landako Madarias baserrira eramateko asmoa zuen. Hala ere, hasierako asmoa baztertu egin dute, auzokideek egindako presioaren eraginez. Horren ordez, 14 eta 18 urte bitarteko neskentzako zentroa zabalduko dute.

Auzokideek kautelaz hartu dute erabakia, "Jokaera ezegokiak izan arren, askatasuna kentzeko zigorrak ez dutela jakinarazi digute, baina ez dakigu ezer gehiago". Loiuo San Jose Artesano etorkin gazteen-tzako zentroa Erandioko Landatik oso hurbil dago eta horren ondorioak jasan dituztela ziurtatu du auzokideen bozera-maileak. "Baina ez ditugu nesken arazoak ezagutu eta, beraz, ezin dugu jarrerarik hartu oraindik. Horregatik, ahalik eta informazio zabalena emateko eskatzen diegu instituzioei, baita tramite guztiak era garbian betetzeko ere".

Arropa biltzeko kanpaina, azarotik aurrera

Txorierrriko Mankomunitateak arropa biltzeko kanpaina jarri du abian. Kanpaina horren helburua da arropa berreskuratzea, berrerrabiltzea eta birziklatzea.

Herrietan edukiontziak jarriko dira, auzokideek arropa bertan utz dezaten azarotik aurrera. Arropa poltsetan sartu beharko da eta Berohi enpresak astean behin bilduko du. Zamudioko lantegian sailkatuko dute, xede bi kontuan hartuta: alde batetik, arropa berrerrabiltzea eta saltzea, eta bestetik, erabili ezin den arropa birziklatzea, industria-garbiketarako trapu edo lehengai bihurtzeko, besteak beste.

Kalkuluen arabera, biztanleko arropa kilo bi bilduko dira urtean.



Argazkia: Ana Landa

Loiuko azokak 10.000 lagun batu ditu

Urriaren 16an, Loiuko Eskulangintza eta Gastronomiako XIII. Azoka egin zen eta bertara 10.000 lagun hurbildu ziren. Azokan 84 ekoizlek hartu zuten parte: 34 eskulangilek eta 50 gastronomia-ekoizlek.

Txakolina, Idiazabal gazta eta txahal-torta eta txerri-torta (okela ekologikoa) dastatzeko aukera izan zen; bitxikeria moduan aipa daiteke Ziburuko postuan taloa ezti, txokolate eta marmeladarekin

saltzen zutela.

Loiuko azoka egutegiko zitarik garrantzitsuenetariko bat bihurtu da. “Publiko ziurra badugu ere, gero eta jende gehiago hurbiltzen da herriraino. Eta ekoizleak oso pozik irteten dira salmentekin. Azpimarratzekoa da eskulangile batzuk Madril-etik edo Bartzelonatik etortzen direla, bertan goiza emateko”, esan digute Udaletxean.

Txorierriko VIII. Ipuin Lehiaketa

Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Txorierriko VIII. Ipuin Lehiaketa antolatatu du. Lehiaketan nahi duten guztiek har dezakete parte eta bost kategoria egongo dira: A kategoria, 7 urtera arte; B kategoria, 8 eta 9 urtekoentzat; C kategoria, 10 eta 11 urtekoentzat; D kategoria, 12 eta 15 urteren bitartekoentzat eta E kategoria, 16 urtetik gorakoentzat.

Lanak euskaraz egin behar dira eta ez dituzte lau orri baino gehiago edukiko. Halaber, jatorrizkoak eta argitaratu gabekoak izango dira. Gaia librea da eta epaimahaiak imajinazioa, sormena eta presentazioa, besteak beste, kontuan hartuko ditu, ipuinak ebaluatzeko orduan.

Ipuinak Txorierriko liburutegietan edo Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan aurkeztuko dira gutunazal handi baten barruan. Gutunazaleko kanpoko aldean kategoria eta udalerria idatziko dira eta barruan, beste gutunazal txikiago bat sartuko da. Bertan, izen-deiturak, helbidea, adina eta telefonoa jarriko dira. Lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 25a izango da. Kategoria bakoitzean sari bi eta akzesit bi emango dira.

Umeentzako psikologia-zerbitzua, Mankomunitatearen eskutik

Txorierriko Mankomunitateak umeentzako psikologia-zerbitzua jarri du martxan, ikastetxeek eta guraso elkarrekin hala eskatuta. Zerbitzuak helburu bi ditu: alde batetik, haurrek izaten dituzten arazo psikologikoak prebenitzea eta bestetik, halako arazorik sortzen bada, arazoa duen umeari eta haren familiari laguntza ematea.

Zerbitzua ikastetxe publiko eta pribatu-tuetako umei zuzenduta dago eta astean behin emango da. Eskerak ikastetxeetan edo oinarritzko gizarte-zerbitzuetan egin behar dira.

Hitzaldia eta gazteen bazkaria, Derioko batzokiaren urteurreneko ekitaldien artean



Derioko batzokiak 25 urte bete ditu eta, urteurrena ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dira urriaren 7tik 9ra bitartean. Barikuan, Antonio Alvarez Solis kazetariak *Nazionalismoa etorkizuna bezala* hitzaldia eman zuen. Zapatuan, futbito partida,

trikipoteoa eta EGIren bazkaria egin ziren. Azkenik, Egun Nagusia domekan ospatu zen; egun nagusi horretako ekitaldien artean aipatzekoak dira ikurrinaren igoe-
ra, Iñigo Urkulluren mitina eta herri baz-
karia.

Lauroetako I. Mendi Ibilaldia arrakastatsua izan da

Lauroetako jai egitarauaren barruan, I. Mendi Ibilaldia antolatu zan urriaren 1ean eta bertan 100 bat lagunek parte hartu eben. Lauromendiko gerra garaiko nitxoak bisitatu ondoren, mendizaleak Goikoganera joan ziran eta handik Lañomendiko kurutzera. Laskitorrotan indarrak barritu eta Unberantz abiatu ziran. Ibilaldia Lauroetako San Migel ermitan amaitu zan.

Beste alde batetik, jaietan bertsolariak eta umeentzako jolasak izan ziran. Ekitaldi horreek be arrakasta itzela izan eben.

Iñaki Beitia



Sondikako IX. Azoka

Azaroaren 13an, Sondikako Artisautza, Nekazaritza eta Abeltzaintzako IX. Azoka izango da, goizeko 10etatik arrastiko 2,30ak arte. Bertan Idiazabal gazta eta txakolina probatzeko era izango da eta bertsolariek kantatuko dute.

Euskal Herria- Catalunya Astea, Sondikan

Marrodan Olerki Elkartek Euskal Herria-Catalunya II. Kultur Astea antolatu zuen, urriaren 18tik eta 23ra bitartean. Euskal Herriko hainbat herritan kultur ekitaldiak izan ziren eta Sondikan ekintza bi egin zituzten: Didi pailazoak saioa eskaini zuen bertako ludotekan, eta Mariona Masgrauk *Jostailu kutxa* antzezlanak aurkeztu zuen Kultur Etxean.

Lezama Bizirik Koordinakundeak errebindikazio- jaieguna antolatu du azaroan

Lezama Bizirik Koordinakundeak errebindikazio-jai eguna egingo du azaroaren 20an, goizez, Bilboko Metropolitiko Lurralde Plan Partziala (LPP) salatzeke. Egun horretan, Aretxaldetik martxa bat, kontzentrazioa udaletxearen aurrean eta erromeria izango dira, besteak beste.

Beste alde batetik, azaroaren 4an, iluntzeko 8etan, herriko kultur aretoan bilera egingo dute. Bilera herritar guztiei zabalik dago eta bertan LPPren inguruko informazioa emango dute.

Koordinakundeak LPPren kontrako mila sinadura baino gehiago batu ditu ekainetik hona. Horrezaz gainera, Lezamako Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin bildu da urrian, instituzioen asmoa ezagutu eta auzokideen kezken berri emateko instituzioei.

Ludoteka ibiltaria, Sondikan

Bizkaiko zenbait Euskara Zerbitzuek Ludoteka Ibiltaria antolatu dute eta Txorierrira azaroaren 26an, arratsaldean, ailegatu da, Mankomunitatearen eskutik. Ludoteka Ibiltaria Sondikako ludotekan egingo da, izan ere, Euskara Eguna herri horretan ospatuko da aurrean.

Ekitaldiak euskarazko produktuen katalogoa umei ezagutzera ematea du helburu eta hainbat joko, liburu eta material informatiko, besteak beste, ikusi eta probatzeko aukera izango dute bertan.

Antonio Alvarez Solis, kazetaria

“Zeregin historikoa duzue eta hori oso lan neketsua da”

La Vanguardia egunkariko erredakzio burua, Interviu aldizkariko lehenengo zuzendaria, irratan eta telebistan ibilia... Antonio Alvarez Solis gaur egungo kazetaritzako pertsonaiarik nagusietariko bat da. Orain dela gutxi Derion izan dugu.

Oso lotura handia duzu Euskal Herriarekin. Lan harremana argi dago: Euskal Telebistako eta Radio Euskadiko kolaboratzailea eta Deia-ko artikulugilea. Badago lotura sentimentalik?

Zelta naiz eta horrek pisu handia du. Euskal eta zelta etnia oso hurbilak dira: independentzia maite dugu, oso tribalak gara, familiari eta lagunei dagokienez, dialektika antzekoa erabiltzen dugu... Eta Euskadik erakartzen nau beste arrazoi honegatik: Europako estatutik gabeko herrietako nazionalismo ideologikorik indartsuena euskal nazionalismoa da. Gainera, beste faktore batekin egiten du bat: estatuek nazio horiek izugarri suntsitu dituzte; hala ere, Euskadi oso herri aberatsa da.

Zein da nazionalismoaren etorkizuna?

Nire ustez, nazio horiek sistema politiko desberdina ekarriko dute. Botere politikoa herritarrengana hurbiltzen saiatzen dira. Horrela, bada, alderdi abertzaleak herrian sendotu dira eta demokrazia-kontzeptua indarberritu ahal dute. Burujabetza lortzeko borrokatzen dute eta horrek bizi-indarra ematen du. Estatuaren antropofagiak ez ditu nazio horiek menperatu, eta nazio bezala askatasunez bizi dira, nazioa izateko borrokatzen dute. Eta etorkizuna hurrengo honetan kokatuko da, nire ustez: burujabetza lortu ondoren, nazioek federazioan elkartu beharko lukete, aktiboagoak izateko. Baina lehenengo eta behin, burujabetza egon

Testua eta argazkia: Itxaso Marina



“Edozein gerra bukatzeko ezinbestekoa da armistizio bat edo bake tratatu bat izatea”

behar da.

Kataluniako Estatutean erabilitako nazio hitzak ez zaio asko gustatu Zapaterori, eta Aznarrek balkanizazioari buruz hitz egin du...

Estatuek hitza erabiltzen dute beldurra

sortzeko. Gerra modernoa da, izan ere, gaur egun ezin gara tankeekin ibili.

Artikulu batean Ibarretxeren-Plana txokolatezalea eta afrodisiakoa zela esan zenuen...

Energia ematen duelako. Plan hori lurperatu nahi dute, baina Legebiltzarrean onartu zen eta Euskadiren oinarritzko norabidea da. Ibarretxek XIX. mendeko estatistak ekartzen dizkit burura: agintari tinkoa da. Gauza batzuetan berarekin bat etor naiteke edo ez. Baina orain bera da traineruko patroia eta, ertzer ailegatzen denean, non egongo naizen ikusiko dugu. Zeregin historikoa duzue eta hori oso lan neketsua da: sistema politiko berria sortu, beste herrialdeekin harremanetan egon, bizitza demokrazia eta askatasuna bezala ulertu... Eta hori oso polita da, baina lan egin behar da, baita makina bat egur jaso ere.

Euskal gatazkaren inguruan hitz asko entzuten dira, baina ezer gutxi ikusten dugu. Orain dela gutxi IRA desarmatu egin da, beste bake-prozesu batzuei erreparatu beharko genieke?

Hitzetatik kanpo, egia da euskal gatazkan aurrerapauso gutxi egin direla. Baina hitzek gauza on bat badute: denborak aurrera egin ahala, bakoitza bere tokian jartzen dute. Beste alde batetik, gaur egungo terrorismoa hau edo bestea lortzeko gerra bidetzat jotzen dut eta, edozein gerra bukatzeko, ezinbestekoa da armistizio bat edo bake tratatu bat izatea.



...eta Txorierrin, zergatik ez?

Neguan egun asko ematen ditugu udarako planei bueltaka eta normalean hurrengo hau egitea erabakitzen dugu: hotel edo kanpin batera joan eta mendiaz edo hondartzaz gozatu. Duela pare bat urte, udan antolatzen diren auzolandegien berri izan nuen.

Testua eta argazkia: Beñat Aiarza

Aurten Greziara etorri naiz, lagun batzuk bisitatzera, eta Volos hiritik hurbil –Pilio mendian hain zuzen ere-, auzolandegi horietako bat antolatu izanaren berri jaso nuen kasualitatez. Bitan pentsatu gabe, bertara abiatu nintzen.

Batzuek auzolandegi bat zer den ez duzue argi izango, agian; beste batzuek, ordez, zerbait entzun duzue.

Funtsean udako kanpamendu baten antzeko antolakuntza dute eta nik ezagutzen ditudan herrialde ezberdinetako gazteek osatzen dituzte. Mota askotakoak izan daitezke: ingurugiroarekin lotutakoak, kulturarekin, giza eskubideekin eta abarreko gaiekin. Normalean, goizez egiten da lana eta arratsaldean ekintza libreak, taldeak erabaki beharrekoak... Iraupena bi

edo hiru astekoa izaten da, lanaren arabera.

Oraingo honetan mendi-bide bat garbitu dugu, aitzurrez eta zerrez baliatuta. Bazkaldu ondoren, inguruko bazterrak ezagutzera joaten ginen eta, noiz edo noiz, hondartzara ere bai. Hala ere, guztiak ziren eguneko ordurik animatuenak. Herriko plazako mahai eta aulkiak jendez lepo zeuden eta askotan kantetan eta dantzari ibili ginen bertako jendearekin batera. Besoak zabalik hartu gintuzten, nahiz eta kanpotarrak izan. Pentsa ezazue zein ongi pasa nuen, ezen Grezian urtebetean geratzea erabaki dudana.

Ondo dakizuen legez, orain dela ez asko –eta oraindik ere, zorionez,- auzoko etxeetakoak ziren laguntzaile, baserrietan

zenbait lan egiteko. Lana egin eta gero, bazkaldu eta ahaleginen uzta denon artean banatzen zuten (beno, beti ez...).

Mundua aldatuz doa, gero eta bizkorrago. Lehengo garaiak ez ditugu orainera ekarriko, baina horrelako auzolandegiak Txorierrin bertan antolatzea bide bat izan daiteke, iragana eta etorkizuna uztartzeko. Hori dela eta, gure eskualdean kanpamendu horiek antolatuko dituen taldea sortzea proposatzen dizuet.

Proposamena zabala eta malgua da; beraz, ez izan edozein ideia komentatzeko lotsarik. Norbaitek interesik, galderarik edo antzeko proposamenik balu gai honen inguruan, benansio82@hotmail.com posta elektronikoko helbidera idatz diezadake. Animatu zaitezte, merezi du eta!

Asier Aurtenetxe, pilotaria

“Gaur egun, pilota dut nire bizitzaren ardatza”



Frontoia dugu Asierren bigarren bizilekua. Lezamarrak garaipena eta bizipoza ezagutu ditu eskupilotaren eskutik. Mexikon datorren urtean egingo den Mundu Txapelketa du hurrengo helburua.

Testua: Maitane Urrutikoetxea

Zerk bultzatu zintuen pilotari bilakatzea?

Nire familia osoa pilotan aritu izanak, batez ere. Osaba eta besteak frontoian ikusten nituen eta ni ere gazte-gazterik hasi nintzen. Zehazki gogoratzen ez badut ere, hiru urte nituenetik nabil pilotan.

Haurtzaroko etorkizun ametsa zenuen?

Garai hartan zaletasun hutsa zen, sekula ez nuen ogibide bihurtzea buruan izan. Urteak aurrera joan ahala, nituen asmo zein pertzepzioak aldatuz joan ziren. Gaur

egun, pilota dut nire bizitzaren ardatza; berak eskaintzen dizkit bizitzan ditudan momenturik goxo zein garratzenak.

Azaldu bi hitzetan esku pilotak zuretzat duen xarma.

Esan bezala, nire bizitza kirol honekin estuki lotuta dago. Nire bizitzak dituen gorabeherak eskupilotak markatzen ditu askotan: garai desberdinetan emozio desberdinak, poztasunik handienak eta gainditu beharreko oztopoak. Baina jakina denez, gustuko lekuan aldaparik ez.

Zer nolako garrantzia izan dute zuretzat, kirolari gisa, ingurukoen laguntza eta babesak?

Momentu txarrenetan laguntasun muga gabea eskaintzen didate. Beraiengatik ez balitz, ez nuke izango horrenbesterako indar eta kemenik une latzen aurrean. Entrenatzaile, lagun zein familiari eskertu nahiko nieke nigatik egin duten guztia, garai gorrietan ikusten delako nork merezi duen.

Zure lanaren eta pilotaren arteko oreka bilatzea zaila suertatzen al zaizu?

Lan osteko nekea egiten zait kaltegarria eta pisutsuena. Bestetik, ikasten nenbilen garaiarekin alderatuta, denbora gutxiago daukat entrenamenduetarako. Hala ere, egunero ematen dut ordu t'erdi ekinean, batz bestea, garaipenak ez baitira berez etortzen. Horiek uztatzeko lan gogorra burutu behar da egunez egun. Aitzitik, komenigarria da astean egun bateko atsedena hartzea.

Oztopoen aurrean ezina ekinez eginga aplikatzen dutenekoak zaitugu?

Gehienetan besteren baten laguntza behar izaten dut aurrera egiteko. Lehen esan bezala, ingurukoen animuak behar ditut suspertzeko. Ni lasaitzen ahalegintzen dira eta era berean, egin beharrekoak ondo beteko ditudala sinistarazten didate. Honekin guztiarekin, nire barnea baretzea lortzen dut eta dudarik onena ematea ahalbidetzen nau.

Zein dugu zure hurrengo erronka?

Aurten ere Bizkaiko zein Lezamako txapelketak neureganatzea. Baina daukadan behin-behineko lesioa dela eta, ez dut posible ikusten. Horrezaz gainera, hurrengo urteko irailean Mexikon egingo den txapelketan parte hartzeko gogotsu nabil, nire burua gai ikusten dudalako. Bi hilabete barru preselektzioak hasiko dira eta ahal dudan guztia egingo dut. Hain aukera aberasgarriari ezin zaio ihes egiten utzi.

“Ingurukoengatik ez balitz, ez nuke izango horrenbesterako indar eta kemenik une latzen aurrean”

Osasuna eta ongizaterantz

Kirola egitea, jatekoa zaintzea eta aztura osasungarriak izatea bizi-kalitatea hobetzen laguntzen diguten jokabideak dira. Gero eta jende gehiago horrezaz jabetu eta kirol zentroak zaleak harenganatuz joan dira. Ezequiel Cuetos Body Center-eko zuzendari teknikoarekin izan gara solasean.

Testua: Itxaso Marina



Kirol zentroen bezeroek gero eta informazio zabalagoa dute eta nork bere burua zaintzearen garrantziaren jakitun daude

Zein ezberdintasun dago gimnasialeku eta kirol zentro baten artean?

Gimnasialekuan gorputzaren gurtza nabarmentzen dute eta kirol zentroak, berriz, zentzu modernoagoa du: publiko zabalagoari zuzenduta dago eta osasunari eta ongizateari lehentasuna ematen die.

Gimnasialekuak gizon gazteen bila, batez ere, ibili dira eta kirol zentroak 15 eta 80 urteren arteko emakumezkoen zein gizonzkoen zerbitzua ematea du helburu. Gure bezeroek, adibidez, sasoi onean egon nahi dute, nork bere burua zaintzearen garrantziaren jakitun daude eta kalitatea eskatzen dute.

Kalitate horren adierazle langileen prestakuntza da...

Zentroan 20 bat langile gaude eta guztiak dugu titulazio ofiziala. Langileok hainbat

birziklatze-ikastaro egiten ditugu urtean zehar eta ikastaro horiek helburu bi dituzte: alde batetik, ezagupenak handitzea eta beste alde batetik, ezagupen horiek bezeroei nola transmititu ikastea.

Zein zerbitzu eskaintzen du Body Center-ek?

Osasuna eta ongizatea sustatzea dugu helburutzat eta, horregatik, bezero guztiak paper bat sinatu behar dute mediku-azterketa egin nahi duten ala ez azalduz. Medikuzko azterketa horrek lesioak aurrehartzeko laguntzen digu. Dena dela, bezeroak ez badu egin nahi, irakasleak osasun eta kirol-itaunketa egingo dio eta hori ere lagungarria izango zaigu. Horrezaz gainera, zentroa urte osoan zehar –Eguberrian eta Urte Berrian izan ezik– dago zabalik eta ia 4.000 m2 ditu. Beraz, ezin ditugu denbo-

ra eta jende-pilaketa kirola ez egiteko aitzakiatzat erabili. Eta osasuna edota egoera fisikoa hobetzeko alde bi ditugu: kirolaldea eta SPA.

Zer topatzen dugu kirolaldean?

Zerbitzu hori bezero guztiak eskatzen dute, ariketa fisikoak hainbat gaixotasun prebenitzen dituela badakitelako. Bertan muskulazioa lantzeko aparatuak ditugu: txingak, mankuerdak, makinak... Mutilek aparatu horiek erabiltzeko prest agertzen dira beti; neskak konbentzitzea, berriz, apur bat kostatzen zaigu, izan ere gizonez-

“Emakumeen portzentaia handiak osteoporosia izango du eta gaitz hori prebenitzeko ariketa fisikoa eta muskulazioa egitea ezinbestekoa da”

koen itxura har dezaketela pentsatzen dute gehienek. Gu konbentzitzen saiatzen gara, etorkizunean emakumeen oso portzentaia handiak osteoporosia izango duelako eta gaitz hori prebenitzeko ariketa fisikoa ez ezik muskulazioa egitea ere ezinbestekoa delako. Kardiobaskular-aldean bizikletak, korrika egiteko eta arraunean egiteko makinak ditu bezeroak, besteak beste. Aparatu kardiobaskularra lantzea garrantzitsua da, bihotzekoak edota kolesterolarekin eta triglizeridoekin iagoera ekiditeko. Eta taldeko ekintzak egiteko lekua ere badugu: fitness, yoga, pilates, tai-chi...

Eta SPA leku egokia da erlaxatzeko...

Estilo frantseseko bainuetxea dugu, hau da, zerbitzu guztiak –jacuzzi, zurrustadutxa...– pertsona bakar batek erabiltzeko dira. Beste alde batetik, estetika eta gor-

putz-tratamenduak egiteko aukera dago zentroan eta masajeak ere ematen ditugu. SPA kirolaldearen osagarria da. Pisua galdu nahi duen pertsona baten kasua jarriko dut adibide moduan: mediku-azterketa egin ondoren, txostena irakasleei aginduko zaie eta eurek programa espezifiko bat diseinatuko diote. Ariketa kardio-baskularrak egiteko zein muskuluak lantzeko aginteaz gainera, bainuetxera joatea

aholkatuko zaio, gorputz-zirkulazioa hobetzeko eta, horrela, likido-erretentzioa edota zelulitisa sortarazi ahal dituzten toxinak iraizteko.

Zeren bila datoz bezeroak?

Bizi-kalitatea hobetu nahi dute eta jakin badakite ariketa fisikoak lagunduko diela behar horretan. Ikerketen arabera, bizitza egun batean luzatzen zaigu kirol-ordu bakoitzeko 40 urtetik aurrera. Izan ere, ari-

keta fisikoak onura handiak ekartzen dizkigu: gaixotasun kardiobaskularrak eta hezurretako narriadura prebenitzen ditu, mugikortasun handiagoa ematen digu, norberaren estimua hobetzen du...

Obsesio bihurtu ahal da?

Oso gizarte lehiakorra da gurea eta egia da pertsona batzuek gorputz-itxura obsesio bihurtu dezakela, baina gure lana ariketa fisiko neurridunak eta elikadura egokiak

*“Ikerketen arabera,
bizitza egun batean
luzatzen zaigu kirol-
ordu bakoitzeko 40
urtetik aurrera”*

dituzten abantailak jakinaraztea da. Neurrigabekeria ezin gara ibili, ez duela-ko ezertarako balio.

Kirol zentroa duela 5 urte zabaldu zenu-ten; zein da egiten duzun balorazioa?

Oso balorazio positiboa. Gaur egun 1.000 bat bezero ditugu, baina askoz gehiago pasatu dira gure instalazioetatik. Bezeroek tratatu atsegina eta kalitatea topatzen dituzte gurean eta etorkizunari begira, tratatu eta kalitate horiek eskaintzen jarraitzeko asmoa daukagu. Zentzu horretan, ISO 9.001 kalitate-ziurtagiria lortu duen Bizkaiko lehenengo kirol zentroa gurea izan dela aipatzekoa da.

Body Center

Derioko Seminarioa.

Telefonoa: 944541582

www.bodycenterbilbao.com

Ordutegia:

astelehenetatik ostiraletera: 07:00-23:00
larunbatetan eta jai egunetan: 08.00-15:00



Salutem Per Aquam

Bainuetxean Britainiatik ekarritako ura erabiltzen dute. “Ur hori itsas urik onena da. Itsas gatz bertoko urarekin nahastu eta oso oxigeno-maila handia duen ura lortzen dugu”, azaldu digu Ezequielek. Lortutako urak eragin onuragarriak ditu osasunean: estresa, nekea eta logabetasuna kentzen ditu eta zirkulazioa hobetzen laguntzen du, baita toxinak iraizten eta bolumena galtzen

ere. Mirarizko ur horri onura atera ahal diogu, lau tratamenduren bidez: hidro-masajeko bainuontzia, Vichy dutxa, zurrusta-dutxa eta Talater delakoa (algoterapia). Tratamendu bakoitzaren ostean eta gorputzetik toxinak kanporatzen jarraitzeko, paper termikoz bilduko gaituzte, oso argi ahulak eta doinu eztiak lagunduta. Masaje integralak amaitutzat emango du tratamendua.



Gizonek txarriari eutsi eta abere-hiltzaileak odolusten eban bitartean, emakume batek odola batzen eban

Negua paraje izaten zan eta soloan ez egoan behar handirik. Txarria hil baino egun bi lehenago, emakumezkoak kinpula eta porruak prestatzen hasten ziran; aurreko hilean, gizonezkoak ida batzen eben, txarria hil ostean idak ganetik ezarri eta erreteko.

Txarri-hiltea ilbeheran egiten zan; “horrela, txorizoak sikatzen ipinten diranean, tangada gitxiago jausten jake”, azaldu deusku Imanol Uriarte Lezamako Txikitoena baserrikoak. Goizez zein arrastiz, etxe baktxaren usadioa zein dan.

Hiru-lau gizonek txarriari eutsi eta abere-hiltzaileak odolusten eban bitarte-

*“Txarri-hiltea ilbeheran
egiten zan; horrela,
txorizoak sikatzen ipinten
diranean, tangada
gitxiago jausten jake”*

an, emakume batek odola batzen eban, odolosteak egiteko. “Animalia idakaz estaldu eta erre egin genduan. Uleak teila batez kendu ondoren, lepapetik hasita tripa barrenera zabaltzen zan”, dino Aitor Madariagak, Sondikako Gezura base-

Txarri-

San Martin eguna eta urtarrila bitartean hiltzen ziran txarriak Euskal Herriko baserrietan. Txarri bat, bi edo gehiago hiltzen ziran, familia baktxean zenbat lagun ziran eta zenbat diru eukun kon-tuan hartuta. Ohitura honen helburua izaten zan familia janariz hornitzea urte osorako; era berean, konnotazio sozial garrantzitsu bat be baeukan.

Testua: Itxaso Marina eta Amagoia Guezuraga
Argazkiak: Amagoia Guezuraga

rrikoak. Albaitariak zati bat hartzen eban, gibel eta solomo apur bat normalean, eta haren barririk ez baebe, txarribodeari ekiten jakon. “Garai haretan etxeetan ez egoan ur korronterik, eta emakumezkook errekan garbitzen genduzan hesteak. Hilekoagaz baginan, ez genduan txarribodan parte hartzen, uste zalako jatekoak ez ebela gatzik hartuko”, gogoratu dau Ana Maria Bilbaok (Aitorren ama).

Arroz, kinpula eta porru usaina zabal-tzen zan baserrien: odolosteak prestatzea izaten eben lehenengo beharra. “Gose apur bat pasaten genduan eta txarri-hiltea gogo handiz itxaroten genduan. Ganera, neba-arrebak batzen ginan gurasoene-

-hiltea

an... Lan handia egoan, baina egundoko ospakizuna zan guretzat”, esan dau Imanolek. Aspaldi ikusi bako senideakaz alkartzeko momentua be bazan. “Umeok jai handitzat geunkan. Lehengusu-lehengusinak etorten ziran, auzokide batzuk... Etxea jendez ganezka egoten zan, jai giro ederra”, aitatu dau Madariagak. Baserri batzuetan, puxikea umeai emoten jaken; beste batzuetan, txarri mantekea gordeteko erabilten zan.

Bazkaltzeko edo afaltzeko, barrukiak,

*“Hilekoagaz baziran,
emakumezkoak ez eben
txarribodan parte
hartzen, uste zalako
jatekoak ez ebela
gatzik hartuko”*

gibela, giharra, bakailaoa edo aza apur bat prestatzen zituen emakumeak. “Parranda ederrak, egun horreetakoak! Ordu txikiak arte egoten ginan baten baino gehiagotan, kantaten eta musean. Eta hurrengo egunean, lanera joan behar, lorik egin barik”, gehitu dau Berreteagako auzokide batek.

Txarritik dana aprobetxaten zan. Okelea txikitu eta txorizoak egiten ziran, pernilak gatzaz beteriko ontzitan sartzen ziran eta urdailak, hirugiharrek, sailhetsak eta solomo adobatua lurrezko ontzietan gordeten ziran, koipez edo mantekaz igurtzita. “Amak urdaiazpiko-ogitartekoak prestatzen eustazan txikitan, eta albo-

Bostak eta iluna, txarria hiltzeko eguna: negua hasi aurretiko garaia izaten da txarria hiltzeko egokiena eta San Martin inguruan hasten ziran nekazariak behar horreetan. Bostetan ilunduta dagoenean, garai egokia da





Uriartek orain 40 urte ikasi eban beharra. Dala gitxi, txandea eman deutso suhinari



Txarria oinarritzko haragizko janaria zan baserrian

azaldu dabe Gezuraga baserrikoak. Halanda guztiz be, kinpula gorria, piperrak eta beste osagaiak prest daukaz Uriartek: kortan hiru txarri daukaz eta laster eurretako bat hilko dabe etxean. Behar hori orain berrogei urte inguru ikasi eban. "Gurasoen etxean lagundu baino ez neban egiten, baina jakin-minak hartu ninduan azkenean. Garai haretan tabernea neukan eta harako egiten genduzan txarribodak. Auzokideai be txarria hil deutset askotan". Orain dala gitxi txandea emon deutso suhinari, "badaki-

"Oraingo txarri okeleak ez dauka zer ikusirik lehengoagaz, animaliek berde gitxi eta pentsu gehiegi jaten dabelako"

ko baserri batera uda pasaten etorten zan Bilboko neskato batek esaten eustan: "Jo, ze ondo, zuk beti jaten dozu urdaiazpikoa!" Eta nik erantzuten neutsan: "Hara, bestea! Eta zuk Tulipana jaten dozu! Ez dakit, Tulipana beste munduko gauzea zala pentsauko neban eta, jakina, etxean egindako gurina askoz hobea zan", kontau deusku Ana Mariak, anekdota moduan.

Txarribodea egin ostean, ohiturea egoten zan alboko auzokideai odolosteak eta urdai apur bat eroatea. Askotan auzokoak txarria hiltzen be laguntzen eben.

Gaur egun, Txorierrin oso baserri gitxitan hiltzen da txarria. "Ez dago lehen egoan beharrezana, eta txarriboda egitea ez dau merezi. Guk egin genduan azkenengo aldian garesti samar urten euskun: hesteak erosi behar dirala, piperrak...",

zue, edadeko kontuak".

Lezamarrak esan dabenez, oraingo txarri okeleak ez dauka zer ikusirik lehengoagaz, animaliek berde gitxi eta pentsu gehiegi jaten dabelako. "Okela sikuagoa izaten da, ez dauka urdairik". Horrezaz ganera, lanaren gogortasunari leporatzen deutso abere-hiltzailerik ez egotea. "Eguraldiaren mende egoten gara eta oso ondo jakin behar da animalia odolusten, odola aprobetxau ahal izateko". Etxean bera ez dagonean, tradizioa galdu egingo da. Halan dino berak. "Bakotzak bere gauzak daukaz". Batek daki bihar-etzi zer pasauko dan, baina aurtan barriro alkatuko da familia txokoan: gizonezkoak txarria hilko dabe eta emakumezkoak odolosteak, txorizoak eta urdaiazpikoak prestatuko ditue. Antxina izaten zan moduan.

Pausoz pauso

Hil aurreko lanak

Ilbehera izaten zan hilerik onena, Kontzepzinotik aurrera, otsailera arte. Hotz dagoanean, saiheskiak, solomoak eta besteak hobeto lehortzeko.

Hil aurreko egunetan hasten dira prestatze lanak: bai txarria hilteko tresnak atontzen, bai mortzilak egiteko behar diran porru, kinpula gorria, arroza, perexila... batzen, txikitzen eta egosten.

Txarria hil aurreko egunean ez jako janari askorik emoten, eta gauean, ezer be ez. Horrela hesteak garbiago izango ditu.

Txarria hil

Gantxoa okotzean sartuta, txarritokitik ateraten da, atzeko ankea soka bategaz lotuta, gero mahai ganean errazago ipinteko. Horretarako hainbat gizonen laguntzinoa behar izaten da.

Mahai txiki baten ganean ipini eta aberehiltzaileak kutxiloaz sangretan dau, bihotza ikutu barik. Momentu horretan andrazko bat prest egoten da zinkezk baldeagaz odola batzeko.

Andrazko horrek odola dariola eragin egingo dau, hotzitu arte. Eta loditzen utzi barik, eta zanak kentzen. Beti eragingo dau alde baterantz. Odola mortzilak egiteko erabiliko da.

Txarria behin hilda, iden ganean ipinita, alde guztietatik ondo erretan da. Erreta dagoanean, ginerra bategaz kentzen jako iden arrastoak eta ur epelagaz, lapiko tapakaz, kutxilo eperdiaz kentzen jako errea.



Berriro mahai txiki baten ganean ipinita, txarria hotzituteko zabaltzen da. Papadatik hasita tripa behera zabaldu behar da. Hesteen aldera heltzean, barrutik kanpora ebagiten da kontuz (horrela ez jake hesteai kalterik egiten).

Hor agertzen dira: barasarea, gantzagiak, gibela, kuntzurrunak, bihotza, biriak, hesteak.... Horreek guztiok kazula baten ipinten dira.

Andrazkoen lana izango da hesteak garbitzea, baita gibela saltsan jartzea be, lanetan lagundu daben gizonai emoteko.

Txarria hutsituta eta barruak ur hotzagaz eta trapu fin bategaz garbituta, eskegi egiten da hurrengo egunera arte. Ondo lehortzeko, kainabera bategaz tripa aldea zabalik mantentzen da eta bizkarrezurra aihotzaz ebagiten da.

Lehenengo lana hesteak banatzea eta ondo garbitzea da.

Odolosteak egiten

Antxina errekareroatzen ziran garbitzera, ur korrontean. Bueltak ondo emon eta gatz, ozpin eta uragaz igurtzi behar dira, hatsa kentzeko. Eta barru uragaz garbitu. Odoloste-maseaz beteko dira heste horreek.

Kinpula gorria eta porruak koipe apur bategaz egosi behar dira, baita biriak be uragaz eta gatzagaz. Arroza be ondo egosi behar da. Biriak, basarea, gantzagiak eta perexila txikertu eta odolagaz nahastauko dira. Gatz-puntu jarri eta hesteak nahasketaz beteko dira. Ondoren, nahi dan neurrian lotu eta mimenakaz txortak egingo dira.

Tankar handi batean ura eta porru orriak ipini eta, dana bero dagoanean, odolosteak bertara botako dira gardostera. Gardostu eta gero, "barandetan" lehortzen eta gogortzen itxiko dira.

Zapia lepoan eta ibili jai giroan!

Kalejirak, txapelketak, erromeriak, karting-a, antzerkia, graffiti tailerra, kontzertuak... Etxean gelditzeko aitzakiarik ez! Zamudioko San Martin jaiak eskaintza zabala egingo deuskue aurten.




Entzun!

Moebius: Kataluniako taldeak Dire Straits, Celtas Cortos, James Brown, Santana eta hainbat musikariren bertsioak jotzen ditue. Gitarra elektrikoa, baxua, teklatuak eta bateria nahasten ditue saxoaren eta biolinaren soinuagaz. Nahasketa horrek estilo desberdinak jorratzeko aukera emoten deutse: musika zelta, rock gogorra, reagea, ska...

Sorkun: Kashbad taldeko abeslari ohia eta Fermin Muguruza Dub Manifest bandako partaidea. Erretereriako neskak bigarren bakarkako lana aurkeztu dau: Duna.

Kerobia: 2003an Euskadi Gaztea irratiko Maketa Lehiaketa irabazteak euskal musika munduan leku bat egiten lagundu eutsan talde honi. Iaz lehenengo lana kaleratu eban. Pop-rock Iruñatik.

Gatillazo: La Polla Records taldea desagertu ondoren, Evaristok proiektu berri



Sorkun

bategaz itzuli da. Abesti azkarrak, erakargarriak, kañeroak... Punk peto-petoa.

Amaiur eta Luhartz: Dantzan ipiniko dabe jende guztia. Erromerian ibiltzeko gogorik?

Goxo-goxo

Gosea egiteko modu ederra! Zamudioko II. Odoloste Sariketarako hasiera emango deutse San Martin jaiak. Lehiaketan ostalariek, harategiek eta partikularrek hartu leikie parte, baina hori bai, mortzilak Zamudioko erara egin beharko ditue. Eta horretarako hurrengo osagai hauek erabiliko dira: txarri koipea eta gantzagia, txarri odola, kinpula, porruak, arroza, perrexila, pipermina eta gatzia. Gainera, lehiakideek txarrien heste naturalak erabiliko

beharko ditue eta mortzilak mimenagaz lotuta aurkeztuko dira. Mortzilagintzan adituak diran hiru zamudioztarrek osatuko dabe epaimahaia, eta hiru sari emongo ditue: 300 euro eta oroigarria, irabazlearentzat; 200 euro, bigarren geratzen danarentzat, eta 100 euro, hirugarrenarentzat. Udaletxean edo 944060998 telefonoan eman behar da izena azaroaren 7a baino lehenago. Bertan be eskuratu leitezke lehiaketaren arauak.

Jai egitaraua

Azaroaren 10a, eguna

16:00: Zamudioko II. Odoloste Sariketarako izen-ematea eta hasiera

19:00: Pregoia, Aitor Aurrekoetxearen ahotik

19:10: Karameluen jaurtiketa

19:15: Kalejira: txistulari, trikitilari eta buruhandiak

21:00: Zamudioko II. Odoloste Sariketako sari banaketa

21:00: Gau-kalejira, Adiskideak fanfarriagaz

Azaroaren 11a, barikua

12:00: Meza nagusia

12:45: Kalejira, Xabi eta Irkusegaz

16:30: Mus eta briska txapelketa irekia, Adintsuen Etxean

18:00: Graffiti tailerra, 12 urtetik gorakotzat

19:30: Erromeria, Pergola taldeagaz, Adintsuen Etxean

23:30: Kontzertuak: Moebius + Sorkun + Amaiur

Azaroaren 12a, zapatua

11:00: Kalejira.

11:00: Gazteentzako Karting-a

12:00: Meza nagusia

15:00: Herri bazkaria, Adintsuen Etxean

17:30: Guirigay obra, Zirco Ttipiaren eskutik

20:30: Musika klasikoa, San Martin elizan

23:00: Kontzertuak: Kerobia + Gatillazo + Luhartz

Azaroaren 13a, domeka

10:00: Uribe Kosta pilota txapelketa

12:00: Kalejira

19:00: Herri dantzak



Limusin Txapelketa, azokan

Zamudioko Nekazaritza eta Abeltzaintzako Azokak XXI. edizioa beteko dau aurturten eta nobedadea ekarriko deusku, izan be, Euskadiko Limusin Arrazako Ganaduaren XIII. Txapelketa egingo da bertan, azaroaren 5ean. Txapelketak modalitate bi izango ditu: behien txapelketa, goizeko 10etan, eta zezenen txapelketa, arrastiko 4,30etan.

Azokako Egun Nagusia azaroaren 6an izango da, goizeko 10etatik arrastiko 3ak arte. Azokan 80 ekoizlek hartuko dabe

parte, eta abereak eta baserriko produktuen erakusketaz gainera, Limousin Txapelketako ganaduaren erakustaldia be egingo da. Halaber, behirik, zezenik eta ganadutegirik onenak aukeratuko dira eta txapelketako errematea egingo dabe. Beste alde batetik, Nekazaritza lehiaketa be izango da.

Goiz osoan zehar, trikitilariak eta txistulariak egongo dira eta lehengo usadioko jantzi edo arroparik aproposena dakarren baserritarrari saria emango jako.

3.000 kiloko harria

Bederatzi urteren ostean, iaz idi probak berreskuratu ziran Zamudion eta aurturten be buztarriak lehian arituko dira bertako probalekuan. Idi probak azaroaren 3an, 4an eta 5ean, 21:00etatik aurrera, izango dira eta 3 buztarrik parte hartuko dabe egun bakotxean. Udalak erositako 3 tonako harria erabili beharko dabe 30 minutuan.

Parte hartzaileak:

Azaroaren 3an, Villanueva, Gernika jatetxea eta Laiñe-Aurrekoetxea; azaroaren 4an, Iñaki Lopategi, Jose Elortegi "Txapas" eta Martin Urrejola; azaroaren 5ean, Sabin Bikarregi, Kotarelo eta Benito Etxebarria. Idiak: pisu librekoak.



Kaleko artea

Azaroaren 11an, arratsaldeko 6etan, Graffiti tailerra egingo dabe frontoian. Tailerrra Derioko Graffiti taldeak emango du eta 12 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Bertan, graffitiak egiteko teknikak irakatsiko jakez gazteei.

Bilbotarren campo santoa

Lehen Sondikako udalerrian eta gaur Loiukoan dagoan aireportuan lurre-ratzerik euki dauan orok egin dau noz edo noz Derioko lurretan dagoan kanposantoaren ganeko komentarioren bat. Hegaldi luzea sufridu ostean, lurreratze-pistea ikusteak emoten dauan lasaitasuna goitik behera garraztu egin jakon Bilbora lehenengoz etorren ezagun bateri. “Ez egoan ba, beste lekurik hilerria ipinteko! Eta ez edozelangoa! Apropos jarrita be!...”, eta hala-koak bota eustazan Catalunyatik etorri barriak. Holangoak askotan entzungo zenduzen, eta egia esan, ez jakie arrazoi apur bat falta.

Testua: Fernando Larrondo



Hemeretzigarren gizaldiaren erdialdetik aurrera, Bilboko Udala kezkatuten hasi zan orduantxe Mallonan kokatuta egoan kanposantuaren egoerea ikusita. Gero eta zaharrago, gero eta itxiago egoan hilerri honek hazteko eukazan muga eta ezintasunez jabetuta, beste nonora eroateko proposamenak begiratzeari ekin eutson udalak. Abando, Burtzeña eta Loiutik lur eskeintza eskuzabal eta gozoak ailegau jakozan Bilboko udalbatzari kanposantoa euren lurretan jasotzeko asmoz. Derio eta Zamudio udalerrietako Vista Alegreko gunea izango zan baina, ontzat emon zan lekua.

Bilbotik Lezamarako trenbidea 1890e-

tik aurrera martxan jarri eban konpainiak Vista Alegre izeneko ia 100.000 m²-ko lursailak eskaini eutsozan Bilboko Udalari, hurrengo 30-40 urteetako lurperatze-beharrizanak asetuko zituan hilerria berton eraiki eian. Konpainiaren eskuzabaltasuna trenbide-negozioaren irabazien ikuspegitik ulertu behar da, jakina. Bilboko bizilagunak, Bilbokoak izan arren, hil egiten ziran, eta gorpuen eta hilkutxen garraioan negozio-aukera ezin hobeak ikusi ebezan.

1895. urtean, Udalak bere oneritxia emon ostean, Edesio de Garamendi Udal Arkitekto Jauna Bilboko Hilerri berria izango zanaren proiektua lantzen hasi zan. Garamendi Jauna hil ostean Enrique

Epalza Arkitektoak hartu eban lanen leku-kotza, bere izena izan dalarik hilerriagaz lotu izan dana. Kanposantuaren inaugurazioa 1902. urtean izan zan.

Estilo eklektikoari jarraituz eta ikutu neogotiko eta neorromaniko ugarigaz, miniaturan egindako hiri baten antzekoa da: bideek koadrikula bat eratzen dabe, Begoñako Andra Mariren plaza dauka

“Miniaturan egindako hiri baten antzekoa da: bideek koadrikula bat eratzen dabe eta modu hierarkikoan antolatuta dago, hildakoen klase sozialaren arabera”

erdian eta modu hierarkikoan antolatuta dago, hildakoen klase sozialaren arabera. Bilboko burgesia osatzen eben familia aberatsek Derioko hilerrian lurperatzen ebezan hildakoak, eta panteoiak etxearen luzapen ziran. Horregaitik parte hartu eben XX. gizaldiaren lehen erdialdeko arkitekto-rik eta eskultorerik onenek –Smith, Basterra, Lucarini, Mogrobojo- familia horreen panteoien eraikuntzan.

Derioko lurretan dagoan kanposantua XX gizaldiko hainbat gertakariren lekuko izan da, Gerra Zibila esaterako. Sondikatik Deriorako errepidearen alboan dagoan ate nagusitik sartuta, ezkerreko zein ezkoako hormetan hilketa asko –fusilamientoak- gertatu ziran Hildakoak, errepublikaren alde burrukan ibilitakoak izan ziran gehien bat. Euren izenak bertoko hormetan ikus daitezke gaur egun be.

Esan geinke hilerriak, zalantza barik, Derioko udalerriaren garapena mugatu eta



XX. gizaldiaren lehen erdialdeko arkitekto-rik eta eskultorerik onenek burgesiaren panteoien eraikuntzan parte hartu eben

baldintzatu dauala, onerako eta txarrerako. Alde batetik, industria berriak erakarri zituan eskualdera –marmolgintza, loragintza...-, eta bestalde, herriaren zabaltzea oztopatu eban. Batzuk alde egongo ziran, eta beste batzuk kontra, baina kanposant-
toak berebiziko garrantzia euki dau Derioko udalerriaren bilakaerean.

Urteekaz zabaltzen joan dan kanposan-
tuak –hasikerako 88.000 m²-ko lursailak ia bikoiztu egin dira- bisita ugari eukiten dauz urtean zehar, arrazoi desberdinek bultzatutako bisitak. Senideen hilobiak bisitetan joaten direnekaz batera, asko dira bertoko artelanak mirestera joaten diranak. Ondo pentsauta, ez zan bape txarto egongo kanposantu barruko bidexkak pasealeku bihurtzea, publikoari zabaltzea eta hurbil-
tzea hainbat herrialdetan egiten dan moduan.

Laster, urtero lez, Domusantu eguna etorriko da, zemendiaren 1ean, eta Derion

dagoan Bilboko Hilerria jente askoren hel-
muga izango da. Betiko jentetzak, betiko loretzak, betiko tendereteak, betiko auto pilatzeak. Oraingo Bilboko Alkateari, Azkuna Jaunari, ez ei jako gustetan hile-
rriaren izena, Vista Alegre, eta aldatzeko-
tan dabil. Ez dakigu derioztarrei zer irudi-
tuko jaken, baina izena jentearen gustokoa dalakoan gagoz.

Beste herrietako kanposantuen aldean, Vista Alegreakoa ez da heriotzaren ispilu soil bat, bere handitasun eta historiari esker bisitatu beharreko lekua be badalako.

“Hilerriak Derioko udalerriaren garapena mugatu eta baldintzatu dau, onerako eta txarrerako”

Iraultza, Zamudioko Futbol Taldea

“Konpromiso itzela dabe jokalariek”

Iraultza futbol taldeak 25 urte bete ditu eta, urteurrena ospatzeko, jai erraldoia egin dabe Zamudion. Karlos Hormaetxe “Txali”-k 24 urte daroaz taldearen presidentzian, eta jaiaren barri emon deusku. Horrezaz ganera, erregionaleko bigarren mailako 4. multzoan jokatzen dauen taldea hobeto ezagutzen lagundu deusku.

Testua: Gaizka Eguskiza



Goian, gaur egungo taldea; behean, duela 25 urtekoa

Zergaitik sortu zan taldea?

Kluba sortu zan, hemengo jokalaria batzuek jokatzeko lekurik ez eukielako. Laguntza barik sortu zan eta bakoitzak berea ordaintzen eban.

Zeintzuk izan dira taldeari eusteko zailtasunik handienak?

Hasieran ez geunkan ezer, ezta ekipajea garbitzeko lekurik be. Garai hartan, Gallartako garbitegi batek ekipajeak ordaindu eta garbitzen euskuzan igandero. Handik aurrera arazoak sortu dira, baina jendearen lan egiteko jarrera ona azpimarratu nahiko neuke. Esaterako, zuzendaritzan antxinako hiru jokalaria gagoz. Beharbada Euskadin ez da izango beste klubik, horrelako filosofia daukanik. Inongo laguntza barik hainbeste denbora irautea kristorena da. Ez neban inoiz be pentsauko.

Beste alde batetik, ez geunkan harreman onik Zamudio taldeagaz, baina orain sei urte presidentea aldatu eta hobeto moldatzen gara: orain ez dogu ordaintzen zelaia erabiltzeko, eta gure ekipajeak garbitzen deus-keuz.

Dirua arazo horietako bat izango da. Zelan konpondu zarie? Eta orain?

Guztira, 6.000 euroko aurrekontua dogu. Udalak lehenengo aldiz emon euskun laguntza iaz: 120.000 euro. Gainerako guztia eskuratzen dogu zozketa bidez, loteria saltzen eta herriko jaietan txosnea ipintzen.

Badaukazue bazkiderik?

Bai, 30 lagun gitxi gorabehera. Sinbolikoki hamabost euro ordaintzen deuskue. Dana dala, laguntza da eta holan erakusten da taldeagaz daben konpromisoa.

Zelakoak dira jokalariai?

Jokalariai hemengoak izatea dogu helburu, eta, egia esateko, guztiak dira txorierritarak. Halan eta guztiz be, batzuk B taldea sortzen hasi dira eta herri guztietan talde bat baino gehiago dago. Hori kaltegarria da guretzat, jokalariai gitxiago dagoalako. Dana dala, 25 fitxa bete doguz aurten. Adinari jagokonez, jokalariai 23 urtekoak dira, batzaz beste. Beteranoak badagoz, baina gehienak gazteak dira, izan be, Federakundeak behartzen gaitu, gitxienez, zortzi jokalariai gazte izatera.

Non eta noiz jokatzen dozuez partidak? Zenbat zale biltzen dozue?

Zamudioko futbol zelaian, zapatuetan zein domeketan. Normalean, 50 lagun inguru etortzen dira.

“Jokalariai herrikoak izatea dogu helburu. Guztiak txorierritarak dira, behintzat”

Aurtengo denboraldia txarto hasi da. Zer dala eta?

Iaz laugarren postuan amaitu genduan, klubak inoiz lortu dauen posturik onena. Baina egia da, aurten txarto hasi gara. Entrenatzaile barria dogu, baina jokalariai bardinak dira. Nik uste dut denboraldi-aurrea berandu hasi garela eta fisikoki oraindik ez gagozala sasoiari, baina gora egitea espero dot.

Zeintzuk dira aurtengo helburuak?

Beno, guk jokalariai ez deusegu ordaintzen, eta dirua beharrezkoa da igoera lortzeko. Gure taldera etorten direnak batzuetan euren taldeetan arazoak izan ditue entrena-

tzeko. Guk astean hiru egunetan entrenatzen dogu. Ondo pasatzen saiatzen gara eta partidaz partida goaz. Ekainean igoera-postuetan bagagoz, primeran; osterantzean, ez da ezer gertatzen. Halan be, goi mailako zazpi edo zortzi jokalariai doguz, nire ustez: bata Ohorezko Mailan egon zan Gatikan; beste bat Lezaman...

Zertan aldatu da taldea denbora tarte horretan?

Jokalariai konpromisoa handiagoa da; izan be, orain urte batzuk etorritako entrenatzaile batek seriotasuna sartu eban taldean: lehen sei etorten ziran entrenatzera, partida jokatzeraz mozortuta joaten ziran... Baina gaur egun, konpromisoa itzela dabe jokalariai gazteek bai jokatzeko, bai beste lan asko egiteko: loteria saldu, txosna ipintzen lagundu...

Etorkizuna..., beste 25 urte betetzeko asmoarekin?

Ez dot esango beste 25 urte erraz beteko doguzanik, baina itxaropena daukat etorkizunari begira.



Zorionak

Merezitako jaia egin eben Iraultza taldekoek 25. urteurrena ospatzeko. Goizez, gazteek beteranoen kontra jokatu eban eta, indarrak barritzeko, poteoa eta herri bazkaria egin zan. Horren ostean, mus txapelketa antolatu zan. Gaez, Ene bada!, Urgabe, Jarraitu eta Noizean behin talde-

ak zuzenean ikusteko aukera egon zan.

Txalik dinoanez, gazteai bururatu jaken kontzertuak antolatzea. “Azkenean ondo urten eban eta 210 bat pertsona bildu ginan. Bazirudian herriko jaiak zirala. Jendea dantzari egon zan plazan goizeko ordu txikiak arte. Ziurrenik ez da egongo Zamudion hainbeste jende biltzeko gauza dan beste alkarerik. Jendea ikaragaitza egon”.

Gusturik onena

Irailaren 26an Bizkaiko VIII. Sumiller Txapelketa izan zen Nervion hotelean eta Larrabetzuko Iñaki Suarezek lehenengo postua lortu zuen bertan.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina



Zorioneko urtea da aurtengoa sumillerrarentzat

Lehenengo eta behin, zorionak eman behar dizkizugu.

Oso pozik nago. Alde batetik, mundu honetan urte asko daramatzadalako eta beste alde batetik, azken urte honetan asko ikasi eta lan egin dudalako. Nire zorioneko urtea da aurtengoa: txakolin-kortxoaren kentze ofiziala egin dut Guggenheim Museoan, Sevillan izan naiz Espainiako ardorik onenak dastatzen eta Euskadiko Txapelketara ailegatu naiz.

Sumiller-lana ezezaguna da gehienontzat...

Jendeak ardoen dastatzailearekin lotzen du, baina kontzeptua askoz zabalagoa da: sumillerrak produktu gastronomiko guztiak gestionatu behar ditu eta, horretarako, produktu horiek guztiak oso ondo ezagutu behar ditu. Era berean, sukaldariek harreman estua eduki eta bezeroekin oso adeitsua izan behar da. Otordua osatzen duten osagaiak ederki ezagutu behar ditu:

gazta, ura, alkohol mota guztiak, zigarro puruak...

Horien konposizioa zein produktu motak eta gamak ezagutzean datza gure lana, bezeroei ahalik eta ondoen aholkatu ahal izateko.

Alkohol mota guztiak esan duzu. Topiko hutsa izan arren, horiek mozkorrak!

Ez, ez. Sevillan 220 ardo ezberdin dastatu behar izan nituen hiru egunean eta edan banitu... atera kontuak! Dastaketetan ura eta ogi txigortua erabiltzen ditugu: ogiak usaina neutralizatu egiten du eta urak garbitu egiten du.

Eta zer ez duzu dastatu?

Gauza pila bat. Dena dastatzea gustatzen zait, gauza berriak aurkitzea. Eta lanbide honek aurreiritziak baztertzen lagundu dit: ziur nago poteotan lagunak ni baino exigenteagoak direna, izan ere nik dena bere osotasunean baloratzen ikasi dut. Ardoa gustatzen zait, baina ez erreserba handiko-

ak direlako... Etxeko ardoek ere liluratzeko naute. Gastronomia orokorrean gustatzen zait eta oso pertsona zabala naiz zentzu horretan: etxeko sukaldaritza zein goi mailakoa poz-pozik hartzen dut... Beno, Sevillan goi mailako sukaldaritzako platerak baino ez genituen jaten eta patata tortilla hartzeko irrikitan nintzela zin egiten dizuet.

Lan interesgarria zurea...

Dastatu behar dugu, baloratzen eta ezberdintzen ikasteko. Ardoa edan eta zergatik

*“Lanbide honek
aurreiritziak baztertzen
lagundu dit: poteotan
lagunak ni baino
exigenteagoak dira”*

gustatzen zaigun aztertzea ariketa dibertigarria izan daiteke: usaina, zaporea, ezau-garriak... Eta ardo merkeagoa erosten irakatsiko digu, gainera.

Izan ere, ardorik onena ez da beti garestiena.

Etiketari eta prezioari gehiegi erreparatzen diegu eta, egia esan, badaude oso merkeak eta onak diren ardoak. Beste batzuk garestiegiak dira, nire ustez.

Eta zein gustatzen zaizu zuri?

Guztiak. Mundu honetan hasi nintzenean ardo konplexuak nituen gustokoen, egur-zaporearekin, ardo onduak... Baina tribura bueltatu naiz orain: mahats mota bakarrek ardoak gustatzen zaizkit, baina gazteak... Ardoa eta lursailaren arteko loturaz kontzienteagoa naiz orain, ekoiztu den klimaz, sorterriaren kulturaz... Izan ere, txakolina berton ekoiztea ez da kasualitatea; Valladoliden ez zen gauza bera izango.

Txakolinarekin jarraituz, zelan izango da



Tribura bueltatu da Iñaki: mahats mota bakarreko ardoak gustatzen zaizkio, gazteak...

aurtengo uzta?

Bikaina, ziur asko. Oso euri gutxi ari izan du eta horrek azukre-maila igoten du. Iazkoa ere oso ona iruditu zait. Pertsona batek oso ardo gozoa ekoizten genuela esan zidan behin, baina oso txobinistak ginela, guretzat baino ez genuelako egiten. Eta txakolin gutxi ekoizten dela egia da; hala ere, dena salduta dago eta gehiago ekoizten den neurrian eremu zabalagoa bereganatuz joango dela uste dut. Deskubritu gabeko ardoa da oraindik, zentzu horretan.

Zer deritzozu Euskal Herriko ardo-ekoizpenari?

Panorama oso interesgarria da, gero eta gehiago ekoizten delako eta gure produktua gehiago baloratzen dugulako. Txakolinak ez dauka zer inbidiatu estatuko ardo-

rik or
ardoak
nahiz
izan. E
Erriox
tu...
egiten



rokorrean, eta teknikak hobetzen ari dira pixkanaka-pixkanaka.

Okelarekin ardo gorria eta arrainarekin zuria...

Arau-tekniko batzuk egon arren, jarrera zabalagoa izan behar dugu, izan ere ez da gauza bera okela gorria eta hegazti-haragia; bakailaoa Bizkaiko erara eta bakailao-kokotxak saltsan... Makina bat aukera dugu, eskuliburuak ematen dizkigunak baino gehiago.

Aholkatu afari batean lagunekin ondo

*“Txakolinak ez dauka
zer inbidiatu estatuko
ardorik onenei”*

nuke:
kiten
bada,
ardo
dela,
Errio-
ardo
tasun
gula-

Eresbil, musikaren euskal artxiboa

Nahiz eta elkarte hau gutxi eta gutxik ezagutu, batez ere Bizkaian, laguntza handiko erakundea izan daiteke musikazale, musikagile, musikologo eta musika ikasle-irakasleentzat, posibilitate ugariak ditu eta aprobetxatzeko. Horretarako dago.

Eresbil 1974an sortu zen, MUSIKASTEK —euskal musikagileen lanak zabaltzeko Erreterian egiten den musika-asteak— eragindako programazio beharrak zirela eta. Zentro hau sortzeko ekimena Jose Luis Ansorenak bultzatu zuen Andra Mari Abesbatzaren baitan, eta musika lanak biltzea izan zuen lehen helburua; hala, 1974an bertan hasi ziren garai guztietako euskal musikagileen partiturak biltzen: irailean, musikagileen lehen zerrenda osatu zuten, 300 biltzen zituen; 2002ko abenduaren 31rako, 1.469 zituen erregistratuta.

Eresbilen helburu nagusia musika ondarea eta, bereziki, euskal musikagileen ekoizpena bildu, gorde, babestu eta zabaltzea da. Patronatu baten bitartez antolatzen da, eta Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Erreterriako Udala eta Erreterriako Andra Mari Abesbatza dira partaideak.

Hona hemen artxiboaren sailak:

–Euskal musikagileak: hasieran, euskal musikagileen partiturak hasi ziren batzen bai liburutegi eta artxiboetan arakatzuz, bai erosiz eta bai sortzaileei eurei eskatuz. 2000. urtetik aurrera, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Lege Gordailuko partitura guztien kopia bana jasotzen du Eresbilek.

–Artxibo funtsak: 1978an hasi ziren iristen dokumentu-funtsak, artxibo eta liburutegiak (bai partikularrak eta bai erakunde-enak ere), dohaintzan zein gordailutzan. 2002ko abenduaren 31n 108 funts zituen ERESBILEk.

–Soinu artxiboa: euskal musikagileen lanen soinu-erregistroak jasotzen ditu: gaur egun Euskal Herrian argitaratzen den musika-ekoizpen guztia biltzen da, bai eta euskal musikariek egindako guztia ere, edonon argitaratzen delarik. 2000. urtetik aurrera, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Lege Gordailuko disko guztien

Eresbilek musika ondarea eta euskal musikagileen ekoizpena babestu eta zabaltzea du helburu



kopia bana jasotzen du Eresbilek.

–Musika liburutegia: musika ikerketak garatzeko iturri inprimatu nagusiak jasotzen ditu sail honek, eta beraz erreferentzia obra asko ditu. Horrez gain, Europako partitura-bildumak ere baditu, musikariei errepertorioa bilatzen eta ikasketan laguntzeko. Hiru atal handiotan dago eratuta: ‘musika-literatura’, ‘aldizkariak’ eta ‘partiturak’.

–Dokumentazioa: ahal denik eta dokumentu gehien jasotzen dira sail honetan, musikagile, interprete edo musika-gaiei buruzkoak: esaterako, artikulatuak, prentsa-ebakiak, gutunak, informeak eta beste. Horrez gain, kartel, esku-programa eta ikonografia bildumak ere biltzen dira.

Eresbilek askotan izaten ditu lankide-tza harremanak beste musika eta dokumentazio erakunde batzuekin. Euskal Herriko musikagileen elkarte, EUDOM euskal dokumentazio musika elkarte, Txistularien elkarte, Euskal Herriko koruen federazioa, Eusko Ikaskuntza eta INAEM musika eta dantza erakundeko dokumentazio zentroa dira, besteak beste, Eresbilekin jarduten dutenak.

Testua eta argazkia: Pospolin

Larrabbarri, elkargunea

Derioko baserria ekintza soziokulturalak egiteko erabiltzen da 2004. urteko azarotik hona

Baserria Larrabbarri dentsitate gutxiko erai-kuntzako plan partzialaren barruan dago eta fase bitan egin dute. Lehenengoan, antzinako etxea bota eta berriro altxatu zuten. Lantegi-eskolako ikasleak bertan ari ziren beharrean eta hormigoizko eta egurrezko estrukturez gainera, igeltsero-lanak egin zituzten. Derioko Udalak bigarren fasea bere gain hartu eta instalazioen akaberari eta urbanizazio-lanei ekin zien. Fase horretako beharrak 2004. urteko udan bukatu ziren eta 512.5000 euroko inbertsioa egin zen. Beste alde batetik, etxea Eusko Jaurlaritzako Izartu II programaren barruan eraiki dutela aipatu beharra dago.

Larrabbarri baserriak hiru solairu ditu: sotoa, beheko solairua eta teilatupea. Sotoan garajea eta kultura taldeek materiala gordetzeko hainbat trasteleku daude. Beheko solairuan igogailua, bulegoak, komunak –bat elbarrituentzako egokituta- eta sei eta hamar urte bitarteko umeei zuzendutako ludoteka jarri dituzte. Gurasoentzako gela ere badago solairu horretan. Eta teilatupean bulego batzuk, balkoia eta elkartzeko gunea daude. Gune horretan Agenda 21ko foroak, oposizioak, gurasoentzako eskolak eta kontzertu bat egin dira, besteak beste.

Bitxikeria lez, aipatzekoa da teilatuan kristalezko leiho bat jarri dutela. Leiho horrek argitasun handia ematen die eskaile-rei. Derioko Udalak Wi-Fi sistema laster ipintzeko asmoa du, Internetera sartu ahal izateko.



Sukaldaritza

Espagetiak Baliko erara

Osagaiak (bi lagunentzat):

- Espageti finak
- Tipulin handi bi, xerratan ebakiak
- Apio adar bi, piper berde bat eta piper gorri bat (juliana eran ebakia)
- Pipermin bi
- Tamari (soja saltsa)
- 200 g. ganba (txikituta)
- Olio
- Gatza

Prestatzeko era:

Jarri sutan lapiko handi bat gatz apur batekin, eta egosi espagetiak "al dente" egon arte. Erregosi barazki guztiak eta piperminak zartagin batean, eta, eginda daudenean, bota Tamari saltsa, nahi beste. Gehitu espagetiak eta eragin ondo osagai guztiak behar legez nahastu arte. Azkenik, frijitu ganbak eta bota espagetei.

www.sukaldeon.org



Tolosako teilak

Osagaiak:

- 450 g. glas azukre
- 450 g. almendra xehatu
- 7 arrautza
- 250 g. irin

labean 200 gradutan, eta gorritutakotan, atera. Erabili botila bat teilari forma emateko.

www.sukaldeon.org

Prestatzeko era:

Nahastu azukrea eta arrautzak, bota almendra eta irina, eta landu ore. Igurtzi olio labeko plaka eta sartu ore gozogintzarako mangeran. Jarri ore-bolatxoak plakan, eta zapaldu eskuarekin (bustita egon behar du eskuak). Erre



LIBURUAK

Bihotz gosetien kluba

Ehiztari bakartia omen da bihotza, norbaitek behin esan zuenez; beste bihotz batzuren bila dabilen hesitarrak, bere gosea asetzeko, bere bakar-dadea arintzeko..."

Kearen truke

Aritz Gorrotxategi.

"Noraino iristeko gai da maitale bat maite duen horren peskizan? Are, maite den hori pertsona bat ez baina gauza bat denean".

Lotara joan aurreko ipuinak

E. Estivil.

Txikiei hazten laguntzeko kontakizunak. Hogeita bat ipuinez osatuko bilduma honen asmoa gurasoei haurren heziketarako osagarria izatea da. Haurren hainbat arazo, zalantza, ohitura txar, larritasun eta galdera kontakizun moduan lantzeko tresna.

MUSIKA



Zeba. Anari

Bakoitzari berea. Lor

Nortasun. Selecta kolektiboa

Hotelero kantuak. Asier Serrano

DENBORA PASA

LETRAZOPA

M	D	D	F	R	U	B	L	E	X	A	A	F
A	E	T	R	I	X	T	Y	T	L	Z	U	M
E	N	P	E	O	O	G	B	S	T	B	E	E
P	D	P	A	T	A	I	S	E	Y	N	Z	U
E	E	R	R	F	G	K	J	K	L	D	Y	A
T	B	A	R	T	A	X	O	R	I	E	X	F
X	R	O	E	H	Y	M	N	H	P	M	A	X
A	S	A	P	G	H	S	J	O	E	R	Z	G
X	B	R	E	I	Z	F	I	U	Ñ	G	H	Ñ
F	A	X	P	H	J	M	K	L	T	K	Ñ	H
U	B	Y	O	Z	K	U	L	N	N	I	M	B
J	T	A	R	E	K	I	T	R	E	P	E	J
D	S	E	Ñ	K	P	J	U	I	G	L	I	D

A	U	B	A	L	Y	J	I	H	G	F	B	A
X	E	K	X	A	R	R	A	S	U	G	A	S
K	O	Z	T	I	J	K	I	P	O	O	G	K
O	G	I	G	A	S	T	A	Y	A	D	H	O
R	T	L	S	M	J	R	N	P	H	X	E	N
Z	Y	J	N	C	O	M	H	R	K	B	P	A
A	R	U	E	I	S	E	B	H	D	E	A	R
R	T	D	G	Z	I	P	M	E	Y	F	E	R
R	Y	G	X	K	B	N	D	K	U	I	S	A
O	S	P	U	I	D	F	L	R	B	T	M	S
T	T	L	J	Ñ	O	E	B	R	Y	I	M	U
A	D	R	F	M	I	X	E	R	R	A	X	L
S	U	G	K	N	F	B	A	Ñ	Z	N	A	Z

Aurki itzazu goiko letra-zopan **7 txorien izenak***. Kontutan hartu Txorierrin esaten dan eran idatzita dauzela.

* "Zamudio berbarik berba" liburutik jasoak.

Ezkerraldean **AIKOR!** 41. zenbakiaren letra-zoparen erantzuna. 7 animalien izenak Txorierrin esaten dan erara idatzita.

Euskal herriko d-generazioa

Aldatu behar dot nire bizimodua, eboluzio baten beharrez ikusten dot nire burua...

Kirol apur bat egin, ikasketeei hobeto heldu, liburuak irakurtzen hasi, musika, teatroa, poesia, asteburuko mazkorrak hartzeari utzi, neskatok euskaletan jator bat topatu...

ya, ya...

aritz eta nagei aitzor! os-eko urriak 15

Beste kofia bat, mesede?

Agenda

Antzerkia eta filmak

Sondika

–*Igandean piratek jai*, Markeliñe taldearen eskutik. Azaroaren 11an, 18:30etan, Kultur Etxean.

–Otxote Dacapella (Alemania), musika ekitaldia. Azaroaren 18an, 20:00etan, kultur Etxean.

–Tap Olé, azaroaren 26an, 21:00etan, Kultur Etxean.

Zamudio

–*Una cenicienta moderna*, azaroaren 6an; *Lilo & Stich: el efecto del defecto*, azaroaren 20an eta *Millones*, azaroaren 27an. Guztiak 17:00etan, dorretxean.

–Ballet Julio Bocca, azaroaren 18an, 20:00etan, Arriaga antzokian.

Lezama

Hitzak patriketan, haurrentzako antzerkia, azaroaren 25ean, kultur aretoan.

Larrabetzu

–Helduentzako ipuin kontaketa, azaroaren 25ean, 19:00etan, Kultur Etxean.

Azokak

Sondika

Artisautza, Nekazaritza eta Abeltzaintzako IX. Azoka, azaroaren 13an.

Zamudio

Nekazaritza eta Abeltzaintzako XXI. Azoka, azaroaren 5ean eta 6an.

Erakusketak

Sondika

–Sondika-Goiri argazki elkartearen erakusketa, azaroaren 2tik 25era, liburutegian.

–Tunning erakusketa, azaroaren 20an, 13:00etatik 19:00ak arte, geltokiko aparkalekuan.

–Aster Kosta, Bizkaiko itsasaldeko argazkiak, azaroaren 29tik abenduaren 13ra, liburutegian.

Larrabetzu

–Sorospidezko arauak, azaroaren 16:00etatik 20:00etara, Kultur Etxean.

Hitzaldiak

Larrabetzu

–Automedikazioa, azaroaren 17an, 17:30etan, Gure Etxean.

Idi Probak

Zamudio

–Azaroaren 3tik 5era, 21:00etan, probalekuan.

Ikastaroak

Zamudio

–Perkusio afrikarra, azaroaren 5ean, 12an eta 19an, Lagatzuk antolatuta.

Lezama

–Informatika eta Internet, urriaren 26tik abenduaren 21era, goizez eta arratsalde, KZ gunean. Emakumeei zuzenduta.

–Zaintzen ikasi, azaroaren 2tik abenduaren 21era. Pertsona zaharrak eta ezgaituak zaintzen dituztenei zuzenduta.

Larrabetzu

–Globoflexia, azaroaren 16an, 17:00etatik 19:00etara, ludotekan.

Irteerak

Loiu

–Bakeira, abenduaren 16tik 19ra. Argibideak udaletxean.

Zamudio

–Oiz, azaroaren 12an, Arroeta mendi taldeak antolatuta.

Lezama

–Las Mazorras (Burgos), azaroaren 20an, Gailur mendi taldeak antolatuta.

Jaiak

Derio

–Txarriboda-bazkaria, azaroaren 12an. Izena emateko: Mapfren (Esther), Txepetxa AEKn (Belen) edo 635753595 telefonoan. Tximintxek antolatuta.

Zamudio

–San Martin, azaroaren 10tik 13ra.

Kontzertuak

Zamudio

–Maddi Oihenart eta Josetxo Goia-Arriber, azaroaren 23an, Lagatzuk antolatuta.

Lehiaketak

Sondika

–Gabonetako Postalen Lehiaketa. Aurkezteko epea: abenduaren 9ra arte udaletxean.

Zamudio

–Gabonetako Postalen VI. Lehiaketa. Aurkezteko epea: azaroaren 21a baino lehen kultur bulegoan.

Lezama

–Kiroldetik I. Frontenis Txapelketa. Azaroaren 19an hasiko da.

Larrabetzu

Gabonetako Postalen II. Lehiaketa. Aurkezteko epea: azaroaren 10etik 21era arte. Oinarriak liburutegian.

Bestelakoak

Derio

–Kantuz, ostiralero, 19:00etatik 20:00etara, Tximintxek antolatuta.